



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala delitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bitu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OCAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, GOICOECHEA Inaki, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OCAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Eiorri, CHAMALBIDE Corinne.  
Bilkurako Idazkari Izendatua izan da : CASIRAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2023ko apirilaren 28a  
Afitxatze eguna : 2023ko apirilaren 28a

### 10. ERABAKIA: APHALATSORDOKIKO BIDEAREN ZATI BATEN ERREGULARIZATZEA

(3.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio Aphaltatsordokiko Bidea pixkanaka zabaldua izan dela eta dagoeneko bide horren parte bat honako jabegeetan aurkitzen dela:

- Marie Thérèse eta Jean-Bernard ARTIGUEBIEILLE jaun andereen F 1294 lur saila (sail zenbaki berria: F 1438, 857 ca)

- Jean OTHALEPO jaunaren F 1204 (59 ca-koa).

Herri Biltzarrari proposatu dio 857 m<sup>2</sup> eta 59 m<sup>2</sup>-ko azalera eskuratzea, 0.15 €/m<sup>2</sup>ko prezioan eta lur sailak eremu publikoan txertatzea.

Sailkatze berriak ez duenez eraginik bidearen zirkulazio ahalmenean, gaur egungo azalerek jadanik zirkulazio funtzioa baitute, honako erabakiak ez du inkesta publikorik behariko, Frantziako Errepideen Kodeko L.141-3 artikulua erabera.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrek,

ERABAKI DU Marie Thérèse eta Jean-Bernard ARTIGUEBIEILLE jaun andereei beren Aphaltatsordokiko Bideko F 1438 lur saila 0.15 €/m<sup>2</sup>tan erostea, atxikia den planoan ageri den bezala.

ERABAKI DU Jean OTHALEPO jaunari bere Aphaltatsordokiko Bideko F 1204 lur saila 0.15 €/m<sup>2</sup>tan erostea eta jokoan den azalera sailkatzea, atxikia den planoan ageri den bezala.

AGINDU DIO Auzapezari ekintza horren eta eremu publikora pasatzeko behar diren izapideen egitea, eta bereziki herriko bideen planoa eta sailkapen taula eguneratzea.

Kide kopurua : 15  
Hor zirenen kopurua : 13  
Balizko boz kopurua : 13  
ALDE : 14  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainerako egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OCAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/05/11an.